

8. AKTA: KONTRATAZIO PROPOSAMENA

1.- Leitza, 2024ko maiatzaren 28an, 13:30etan, ondoren adierazten diren pertsonak bildu dira Mankomunitatearen bulegoetan, puntuaziorik handiena duen izangaiaren aldeko kontratazio-proposamena egiteko.

- Lehendakaria: Unai Miranda Berroeta, Mendialdea Mankomunitateko presidentea.
- Batzordekidea: Idoia Saralegui Ochotorena, Mendialdea Mankomunitateko ofizial administraria.
- Idazkaria: Maider Castilla Elarre, Mendialdea Mankomunitateko idazkaria.

2.- Eskatutako agiriak ezarritako epean aurkeztu direla egiaztatuta, epaimahaiak erabaki du Mendialdeko lehendakariari Jose Maria Aizpitarte Salaberria jaunaren aldeko kontratazio-proposamena aurkeztea, eta hark, deialdiaren 10. oinarrian ezarritako 10 egun balioduneko epean, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.

c) Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik.

d) Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura 13:50etan amaitu da, eta akta hau egin da, adostasunaren froga gisa. Horren guztiaren fede ematen dut idazkari naizen aldetik, lehendakariaren oniritziarekin.

LEHENDAKARIA



IDAZKARIA



BATZORKIDEA

